

Trantsizioa

Trantsizioa 1975eko azaroan (Francisco Franco diktadorea hil ondoren) autoritarismo frankistatik erregimen demokratikora, bakez eta haustura iraultzailerik gabe, igarotzea ahalbidetu zuen prozesua da.

Trantsizioa baino lehen, 60ko hamarkadan, aurre Trantsizio prozesua eman zen, oraindik Franco bizirik zegoela. Erregimena mundura irekitzeko ahalegin batean, Desarrollismoa deritzon sistema ezarri zuen estatuan Gobernu Teknokratak. Orduan, aldaketa ekonomikoak, aktibazioak eta liberalizazioa gauzatu ziren Baina, saiakerak egin arren, Europar Batasunari atxikitzea ezinezkoa izan zen demokrazia faltagatik. Desarrollismoaren ondorioz, aurreko aldi autarkiko eta protekzionistaren ondoren, hazkunde ekonomikoa eman zen arren, krisia areagotu zen; ekonomia liberalizatuaren eta gogor kontrolatutako sistema politikoaren arteko talkak eragindakoa.

Autarkia atzean utzita, erregimenak liberalizazio prozesu bat izan zuen, nahiz eta muinean zuritze prozesu bat izan. Francoren heriotza geroz eta hurbilago zegoen, eta, ondorioz, erregimenaren amaiera. 1973. urtean ETAk Carrero Blanco, gobernuko presidentea, hil zuen. Francok honen ondorengoa aukeratu zuen, Arias Navarro, Trantsizioaren prozesuari hasiera emateko, Gerra Zibilean Malagan egindako gehiegikeriengatik “Malago Harakina” bezala ezaguna zena.

Nazioarteko onarpen faltarengatik erregimenean aldaketa bat behar zen, ekonomia globalean integrazteko helburuarekin. Beharrezkoa zen gainerako herrialdeek Espainia demokrazia bat bezala ikustea. Horregatik, interes ekonomikoengatik idatziz jasotako herriaren onarpena lortzea izan zen Trantsizioaren helburua eta ez, benetan, oinarri demokratikoa zuen sistema eratzea. Trantsizioaren benetako helburua frankismoaren garaian ezarritako erregimena eta legeak bermatzea zen, are gehiago, Franco gaixo zegoenean esan zuen “dena lotuta” utzi zuela bere heriotza baino lehen. 1975. urtean Franco diktadorea hil egin zen baina Juan Carlos I. erregea utzi zuen ondorengo bezala eta Arias Navarro monarkiaren lehenengo presidentean bihurtu zen, erregimen frankista alde batera utzi gabe Espainiaren irudi berri bat sortzeko asmoz.

1976ko uztailan, Arias Navaroren dimisioarekin, Juan Carlos I.ak Adolfo Suárezi eskatu zion gobernu berria eratzeko. Orduan hasi zen Espainiaren “demokratizatze prozesua”. Erreforma Politikoaren Legea izan zen haren lehen urratsa, Torcuato Fernández Mirandak, Espainiako Gorte frankistetako presidentea idatzia. Lege hau izan zen erregimeneko azkenengo Oinarritzko Legea. Azaroaren 18an onartu zuten gorteek, eta abenduaren 15ean, estatu-mailako erreferendumean.

Zalantzan jartzekoa da Trantsizioa den prozesu demokratizatzailean zer izan zen benetan demokratikoa eta zer ez. Iritsi al dezakegu sistema demokratiko batera oinarri frankista duen legearekin, EPLarekin? Erreferendumaren emaitza *bai* izatearen aitzakiarekin “zilegitu” ziren Erreforma Politikoaren Legea eta erregimenaren parlamentuaren nahiak. Baina erreferendum bera gobernuak erabilitako tresna bat besterik ez zen izan, politikariek bazekiten baiezkoa irtengo zela.

Galdera nola egiten den, baldintzatuta geratzen da jada erantzuna. “¿Aprueba el Proyecto de Ley para la Reforma Política?”. Zer gertatuko litzateke onartuko ez balitz? Erregimen totalitario eta zaharkitu hartan geratuko ginatke? Aldaketa politikoa gauzatzeko beste bide alternatibo batzuk bideratu beharko genituzke? Dena dela, 1977ko urtarrilean onartuta geratu zen EPL.

Demokraziarako hurrengo pausoa 40 urtetan lehen aldiz eginiko hauteskunde libreak izan ziren. 1977ko ekainaren 15ean egin ziren, eta *Unión de Centro Democrático* alderdia irten zen

garaile, Adolfo Suárezen buruzagitzapean. Kongresua eta Senatua osaturik, estatu demokratiko batek beharrezkoa zuen konstituzio bat. Horrela, 1978ko Konstituzioa izango zenaren prozesua hasitzat eman zen. Gorteetan errepresentazioa lortu zuten alderdiek 1978ko urriaren 31 onartu zuten konstituzioaren dokumentua. Halere, herriaren zilegitasuna funtsezkoa zen: abenduaren 6an eginiko erreferendumean, estatu mailan *baiezkoaren* alde egin zen.

Egindako galdera argi eta garbi zegoen: “¿Aprueba el Proyecto de Constitución?”. Berrito ere, alderdiek bazekiten baiezkoa irtengo zela zalantzarik gabe. Zer zentzu izango luke urte haietan guztietan emandako “aurrerapausoak” hutsean geratuko balira? Are gehiago, zer izango zen konstituziorik gabeko estatu demokratiko bat? Pentsaezina da “legeen legerik” gabeko estatu bat egotea.

1978ko Konstituzioaren beste bi alderdi aipatzekoak dira. Batetik, Suárez hirugarren erreferendum bat egitea pentsatzen ibili zen, Espainiako Koroa demokrazian onartzeko edo ez. Baina ezezkoaren beldurrez, Konstituzioan bertan gehitzea erabaki zuen Koroaren atala; horrela, konstituzioa onartuta Koroa zilegia izateko. Baina benetan onartu al genuen Koroa? Edo demokrazia izateko baldintzetako bat izan zen?

Bigarren alderdia, zera izan zen Euskal Herrian abstentzioa izan zela egindako erreferendum horretan. Modu honetan, Euskal Herriak argi uzten zuen ez zuela halako konstituziorik onartzen, ez zuela frankismoaren jarraipenerako konplizea izango. baina hala ere, konstituzioaren eredu hori inposatu zen estatu-mailan. Espainiako Gobernuak berriz ere engainatu zuen herria.

Laburbilduz, Trantsizioaren helburua sistema frankistarekin jarraitzea izan zen, nazioartean onarpena lortzeko eta barne-politikan demokraziaren aldeko herritarren altxamendu eta aldaketak gelditzeko. Zilegitasun formala eman zitzaion sistema osoari, baina ez materiala. Francok berak esan zuen: “Lo deajo todo atado y bien atado”.